**CONFEDERACIÓN VASCA DE FUNDACIONES FUNKO**

**Fundazioen Euskal Konfederazioa FUNKO**

# ESTATUTOS DE LA ASOCIACIÓN

# ELKARTEAREN ESTATUTUAK

## CAPITULO PRIMERO

DENOMINACIÓN

**Artículo 1.-**

Con el nombre de CONFEDERACIÓN VASCA DE FUNDACIONES – FUNDAZIOen EUSKAL KONFEDERAZIOA (FUNKO) se constituye una Asociación sin ánimo de lucro, como plataforma de encuentro y cooperación de las Fundaciones vascas, acogiéndose a lo dispuesto en la Ley 3/1988, de 12 de Febrero, de Asociaciones, aprobada por el Parlamento Vasco, de acuerdo con lo establecido en los artículos 9 y 10.13 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco.

La Asociación se regirá por los preceptos de la Ley de Asociaciones Vasca, por los presentes Estatutos en cuanto no estén en contradicción con la Ley, por los acuerdos validamente adoptados por sus órganos de gobierno, siempre que no sean contrarios a la Ley y/o a los Estatutos, y por las disposiciones reglamentarias que apruebe el Gobierno Vasco, que solamente tendrán carácter supletorio.

FINES QUE SE PROPONEN

**Artículo 2.-**

**Uno**. La Asociación tiene los siguientes fines principales:

a) Ser cauce y lugar de encuentro y cooperación de las Fundaciones, constituyendo una voz propia en favor de los intereses del sector y de interlocución con los poderes públicos desde posiciones pluralistas.

b) Ser una voz que represente al sector de las Fundaciones y que dialogue con otras interlocuciones con una perspectiva de estricta defensa de los intereses del sector, desde la cooperación y la solidaridad.

## LEHEN ATALBURUA

IZENA

**1. artikulua.-**

CONFEDERACIÓN VASCA DE FUNDACIONES – FUNDAZIOen EUSKAL KONFEDERAZIOA (FUNKO) izenarekin, irabazi asmorik gabeko Elkarte bat sortu da, euskal Fundazioen topaketa eta lankidetzarako plataforma gisa eta Eusko Legebiltzarrak Euskal Herriko Autonomia Erkidegoko Estatutuen 9 eta 10.13 artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, otsailaren 12ko 3/1988 Legean xedatutakoaren babesean.

Bazkunei buruzko Euskal Legeak, Estatutu hauek (Legearekin kontraesanean ez baldin badago), bere gobernu organoek balioz hartutako erabakiek (Legearen edo/eta Estatutuen aurkakoak ez badira) eta Eusko Jaurlaritzak onartzen dituen arau-xedapenek arautuko dute Elkartea; azken horiek ordezko izaera baino ez dute izango.

HELBURUAK

**2. artikulua.-**

**Bat**. Elkarteak honako helburu nagusiok izango ditu:

a) Fundazioen topaketa eta lankidetzarako bide eta toki izatea, sektorearen interesen alde eta botere publikoekin solaskide gisa aritzeko jarrera pluralistetatik ahots propio gisa eratuta.

b) Fundazioen sektorea ordezkatu eta beste solaskide batzuekin elkarrizketan arituko den ahotsa izatea, sektorearen interesen defentsa zorrotza egiteko ikuspegiarekin, lankidetza eta elkartasunean oinarrituta.

c) Delimitar conjuntamente las estrategias unitarias de las Fundaciones asociadas, para el mejor desarrollo de sus actividades fundacionales.

d) Conseguir una amplia participación de las Fundaciones y una máxima afiliación, desde la pluralidad.

e) Ser un instrumento de reflexión conjunta, de toma de decisiones a favor del sector, y de voz representativa ante las Administraciones Públicas, Forales, Autonómicas, Estatales y Comunitarias.

f) Impulsar y coordinar iniciativas así como proyectos sectoriales que respondan a intereses comunes de Fundaciones.

g) Impulsar y potenciar el fenómeno fundacional, como instrumento de expresión de la sociedad civil.

**Dos**. Otros fines y servicios similares y/o complementarios a los expuestos en el apartado anterior.

**Tres**. Sin perjuicio de los fines descritos en el apartado uno, la Asociación, para el cumplimiento de los mismos, podrá:

- Desarrollar actividades económicas de todo tipo, encaminadas a la realización de sus fines o a allegar recursos con ese objetivo.
- Adquirir y poseer bienes de todas clases y por cualquier título, así como celebrar actos y contratos de todo género.
- Ejercitar toda clase de acciones conforme a las Leyes o a sus Estatutos.

c) Elkarteko kide diren Fundazioen estrategia bateratuak elkarrekin finkatzea, fundazioen jarduerak hobeto garatu ahal izateko.

d) Fundazioen partehartze zabala eta ahalik eta afiliazio handiena lortzea, aniztasunean oinarrituta.

e) Gogoeta bateraturako eta sektorearen alde erabakiak hartzeko tresna eta Administrazio Publikoen, Foru Administrazioen, Autonomia Erkidegokoen eta Estatutuko eta Europako Batasunekoen aurrean ordezkari izango den ahots izatea.

f) Fundazioen interes komunei erantzungo dieten ekimenak zein proiektu sektorialak bultzatu eta koordinatzea.

g) Fundazioaren oinarriak bultzatu eta sustatu, gizarte zibilaren adierazpen tresna gisa.

**Bi.** Aurreko atalean adierazitakoen antzeko edo/eta osagarri diren bestelako helburu edo zerbitzuak.

**Hiru**. ”Bat” atalean jasotako ekintzez gain, eta horiei kalterik eragin gabe, bere helburuak betetzeko ondorengoak egin ahal izango ditu Elkarteak:

- Elkartearen helburuak betetzeko edo horretarako baliabideak lortzeko era guztietako ekonomi ekintzak gauzatu.
- Era guztietako ondasunak eskuratu, eta eduki eta mota guztietako egintzak eta hitzarmenak egin.
- Nolanahiko ekintzak burutu, Legeak eta Estatutu hauek errespetatuz.

DOMICILIO SOCIAL

**Artículo 3.-**

El domicilio principal y sede social de la Asociación estará ubicado en Vitoria-Gasteiz, F. Buesa Arena, Ctra. Zurbano s/n, 01013.

La Asociación podrá disponer de otras sedes o domicilios en el ámbito de la Comunidad Autónoma, cuando así lo acuerde la Asamblea General. Los traslados del domicilio social y sedes con que cuente la Confederación Vasca de Fundaciones, serán acordados por la Junta Directiva, la cual comunicará al Registro de Asociaciones la nueva dirección.

EGOITZA SOZIALA

**3. artikulua.-**

Elkartearen helbidea nagusia eta egoitza soziala Vitoria-Gastezen egongo da, F. Buesa Arenan, Zurbano bidea z.g. 01013 helbidean.

Elkarteak beste egoitza edo helbide batzuk ere eduki ahal izango ditu Autonomia Erkidegoan, Batzar Orokorrak hala erabakitzen badu. Fundazioen Euskal Konfederazioaren egoitza soziala eta gainerako egoitzak tokiz aldatzea Zuzendaritza Batzordeak erabakiko du eta Elkarteen Erregistroari jakinarazi beharko dio helbide berria.

AMBITO TERRITORIAL

**Artículo 4.-**

El ámbito territorial en el que desarrollará principalmente sus funciones comprende el territorio de la Comunidad Autónoma Vasca, sin perjuicio de las actuaciones puntuales que pueda desarrollar fuera de ella.

LURRALDE EREMUA

**4. artikulua.-**

Batez ere Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean beteko ditu bere funtzioak, baina lurralde horretatik kanpo ere egin ahal izango ditu kasuren batzuetan.

DURACIÓN Y CARÁCTER DEMOCRÁTICO

**Artículo 5.-**

La Asociación se constituye con carácter permanente, y sólo se disolverá por acuerdo de la Asamblea General Extraordinaria según lo dispuesto en el Capítulo VI o por cualquiera de las causas previstas en las Leyes.

IRAUPENA ETA IZAERA DEMOKRATIKOA

**5. artikulua.-**

Elkartea izaera iraunkorrez eratu da eta Ezohiko Batzar Orokorraren erabaki bidez baino ez da desegingo, VI. atalburuan xedatutakoaren arabera edo Legeetan aurreikusitako arrazoietako edozeinengatik.

## CAPITULO SEGUNDO

ORGANOS DE GOBIERNO Y ADMINISTRACIÓN

**Artículo 6.-**

El gobierno y administración de la Asociación estará a cargo de los siguientes órganos colegiados:

## BIGARREN ATALBURUA

GOBERNU ETA ADMINISTRAZIO ORGANOAK

**6. artikulua.-**

Elkartearen gobernu eta administrazioaz honako organo kolegiatu hauek arduratuko dira:

- La Asamblea General, como órgano supremo.

- La Junta Directiva, como órgano colegiado de dirección permanente.

LA ASAMBLEA GENERAL

**Artículo 7.-**

La Asamblea General, integrada por la totalidad de Fundaciones socias, es el órgano de expresión de la voluntad de las mismas. Se reunirá en sesiones ordinarias y extraordinarias.

Cada Fundación miembro de pleno derecho tendrá un o una representante en la Asamblea General.

**Artículo 8.-**

La Asamblea General deberá ser convocada en sesión ordinaria, al menos una vez al año, dentro del segundo trimestre, a fin de aprobar el plan general de actuación de la Asociación, el estado de cuentas correspondiente al año anterior de gastos e ingresos, y el presupuesto del ejercicio siguiente, así como la gestión de la Junta Directiva, que deberá actuar siempre de acuerdo con las directrices y bajo el control de aquella.

**Artículo 9.-**

Sin perjuicio de lo dispuesto en el artículo anterior, son competencias de la Asamblea General, los acuerdos relativos a:

1. Modificación y cambio de los Estatutos, de conformidad con lo previsto en el artículo siguiente.

2. La elección de los cargos de la Junta Directiva que corresponde a la Asamblea General, según se concreta más adelante.

3. La disolución de la Asociación.

- Batzar Orokorra, organo goren gisa.

- Zuzendaritza Batzordea, zuzendaritzarako organo kolegiatu iraunkor gisa.

BATZAR OROKORRA

**7. artikulua.-**

Batzar Orokorra, bazkide diren Fundazio guztiek osatua, bazkideen nahiaren adierazpen-organo gorena da. Ohiko eta ezohiko batzarrean bilduko da.

Eskubide osoko kide den Fundazio bakoitzak ordezkari bat izango du Batzar Orokorrean

**8. artikulua.-**

Batzar Orokorra gutxienez urtean behin deituko da ohiko batzar gisa, lehen hiruhilekoaren barruan, Elkartearen jarduera-plan orokorra, aurreko urteko gastu-sarrerei dagozkien diru kontuak eta Zuzendaritza Batzordearen gestioa onartzeko; Zuzendaritza Batzordeak Batzar Orokorraren aginduetara eta haren kontrolpean jardun beharko du beti.

**9. artikulua.-**

Aurreko artikuluan xedatutakoa gorabehera, Batzar Orokorrari dagokio honako hauen inguruko erabakiak hartzea:

1. Estatutuak bestelakotu eta aldatzea, hurrengo artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2. Batzar Orokorrari dagozkion Zuzendaritza Batzordeko karguak hautatzea, aurrerako zehaztuko den moduan.

3. Elkartea desegitea.

4. La constitución o integración en una Federación, Confederación o Asociación con otras Asociaciones, y el abandono de alguna de ellas.

**Artículo 10.-**

La Asamblea General se reunirá en sesión extraordinaria cuando así lo acuerde la Junta Directiva, bien por propia iniciativa, bien porque lo solicite la cuarta parte de las Fundaciones socias, indicando los motivos y fin de la reunión; y, en todo caso, para conocer y decidir sobre las siguientes materias:

a) Modificaciones Estatutarias

b) Disolución de la Asociación.

**Artículo 11.-**

La convocatoria de Asamblea General, sea ordinaria o extraordinaria, será hecha por escrito, expresando el lugar, la fecha y la hora de la reunión, así como el Orden del Día. Entre la convocatoria y el día señalado para la celebración de la Asamblea en primera convocatoria, deberán de mediar, al menos, quince días, debiendo, asimismo, hacerse constar el momento en el que, si procediera, se reunirá la Asamblea General en segunda convocatoria, sin que entre una y otra reunión pueda mediar un plazo inferior a una hora.

En el supuesto de que no se hubiese previsto en el anuncio la fecha de la segunda convocatoria, deberá ser hecha ésta con dos días de antelación a la fecha de la reunión.

**Artículo 12.-**

La Asamblea General, tanto ordinaria como extraordinaria, quedará válidamente constituida en primera convocatoria cuando concurran a ella, presentes o por representación, la mitad más una de las Fundaciones socias, y, en segunda convocatoria,

4. Beste Elkarte batzuekin Federazio, Konfederazio edo Elkarte batean eratu edo bat egitea eta horietakoren batetik alde egitea.

**10. artikulua.-**

Batzar Orokorra ezohiko batzarrean bilduko da Zuzendaritza Batzordeak bere ekimenez edo bazkide diren Fundazioen laurdenaren eskariz eskatuta hala erabakitzen duenean, bileraren zergatiak eta helburuak adierazita; eta, edozein kasutan ere, honako gai hauek aztertu eta erabakitzeko:

a) Estatutuen aldaketak.

b) Elkartea desegitea.

**11. artikulua.-**

Batzar Orokorrerako deia, ohikoa ala ezohikoa izan, idatziz egingo da, bilera eguna, ordua eta tokia eta gai-zerrenda ere adierazita. Deialdiaren eta lehen deialdiko Batzarrerako jarritako egunaren artean gutxienez hamabost eguneko tartea izan beharko du; halaber, Batzar Orokorra bigarren deialdian noiz bilduko den ere jasota utziko da, hala badagokio, eta bien artean ordubeteko tartea izan beharko du gutxienez.

Iragarpenean bigarren deialdiaren egunik aurreikusi ez bada, bilera eguna baino bi egun lehenago bidali beharko da deialdia

**12. artikulua.-**

Batzar Orokorra, ohikoa zein ezohikoa, balioz eraturik geratuko da lehen deialdian bazkide diren Fundazioen erdia gehi bat bertaraturik edo ordezkaturik daudenean; eta bigarren.

cualquiera que sea el número de Fundaciones concurrentes.

Las Fundaciones socias podrán otorgar su representación, a los efectos de asistir a las Asambleas Generales, en cualquier otra Fundación socia. Tal representación se otorgará por escrito, y deberá obrar en poder del Secretario o Secretaria de la Asamblea con, al menos, dos horas de antelación a la celebración de la sesión. Las socias que residan en ciudades distintas a aquélla en que tenga lugar la celebración de la Asamblea de la Asociación, podrán remitir el documento que acredite la representación, por correo, fax, correo electrónico o cualquier medio por el que pueda acreditarse documentalmente la representación.

bertaratutako Fundazio kopurua edozein izanda ere.

Fundazio bazkideek beste edozein Fundazio bazkideri eman ahal izango diote ordezkaritza Batzar Orokorrean parte hartzeko. Ordezkaritza hori idatziz emango da eta Batzarreko Idazkariaren esku izan beharko du gutxienez bilera hasi baino bi ordu lehenago. Egoitza Elkartearen Batzar Orokorra egingo den hiritik kanpo duten bazkideek postaz, faxez, posta elektronikoz edo ordezkaritza agiri bidez egiaztatzeko aukera ematen duen beste edozein bide erabiliz bidali ahal izango dute ordezkaritza-agiria.

**Artículo 13.-**

Los acuerdos de la Asamblea General, se adoptarán por mayoría de votos presentes o representados.

No obstante, para la adopción de acuerdos sobre disolución de la Asociación, o sobre la modificación de los Estatutos, se requerirá, en primer lugar, la concurrencia de la mitad mas uno de las socias, y en segundo lugar:

- Tres quintas partes de los votos de las personas representantes o representadas, para el acuerdo de disolución y modificación del articulo 22.

- La mitad mas uno de los votos de las personas representantes o representadas para las demás modificaciones de estatutos.

**13. artikulua.-**

Batzar Orokorreko erabakiak bertaratu edo ordezkaturiko botoen gehiengoz hartuko dira.

Hala ere, Elkartea desegiteari edo Estatutuak aldatzeari buruzko erabakiak hartzeko ezinbesteko izango da, lehenik, bazkideen erdia gehi bat bertan izatea; eta bigarrenik:

- Pertsona ordezkarien edo ordezkatuen botoen hiru bosten, desegiteko eta 22. artikulua aldatzeko.

- Pertsona ordezkari edo ordezkatuen botoen erdia gehi bat, Estatutuen gainerako aldaketak egiteko.

LA JUNTA DIRECTIVA

**Artículo 14.-**

La Junta Directiva estará formada por:

- La Presidencia, que a su vez será la de la Confederación Vasca de Fundaciones.
- 4 Vocalías elegidas por y entre todas las asociadas

La Junta Directiva nombrará una Secretaría General, que asistirá a la misma con voz, pero sin voto.

La Junta Directiva deberá reunirse al menos cuatro veces al año. Y, además, siempre que fuere necesario para el cumplimiento de sus fines.

La Junta Directiva se reunirá cuando la convoque el Presidente o Presidenta o, alternativamente, tres Vocales.

**Artículo 15.-**

La falta de asistencia a las reuniones señaladas para la celebración de la Junta Directiva, durante cuatro veces consecutivas o seis alternas sin causa justificada, dará lugar al cese en el cargo respectivo.

**Artículo 16.-**

Los cargos que componen la Junta Directiva, durarán un período de 4 años, pudiendo ser objeto de reelección.

Dichos cargos se renovarán simultáneamente

**Artículo 17.-**

Para pertenecer a la Junta Directiva será preciso reunir los siguientes requisitos:

ZUZENDARITZA BATZORDEA

**14. artikulua.-**

Zuzendaritza Batzordean honako hauek izango dira:

- Lehendakaria, aldi berean Fundazioen Euskal Konfederazioko lehendakari ere izango dena.
- 4 bokal, Batzar Orokorreko bazkideen artetik hautatuak.

Zuzendaritza Batzordeak Idazkaritza Orokor bat izendatuko du, Batzordean hitzarekin baina botorik gabe parte hartuko du.

Zuzendaritza Batzordeak urtean gutxienez lau aldiz bildu beharko du. Baita, bere helburuak betetzeko beharrezkoa denean ere.

Zuzendaritza Batzordea, lehendakaria edo, txandaka hiru bokala deitzerakoan bilduko da.

**15. artikulua.-**

Zuzendaritza Batzordearen bileretara arrazoi justifikaturik gabe lau bider jarraian edo sei alternatibotan huts egiteak kargutik kentzea eragingo du.

**16. artikulua.-**

Zuzendaritza Batzordeko karguek 4 urte iraungo dute, baina berriro hautatu ere egin ahal izango dira.

Kargu horiek guztiak batera berrituko dira.

**17. artikulua.-**

Zuzendaritza Batzordeko kide izateko baldintza hauek bete beharko dira:

Uno.- La Fundación socia deberá estar debidamente constituida e inscrita, y no estar incursa en proceso de disolución o liquidación, voluntaria o judicialmente instado.

Bat.- Fundazio bazkideak behar bezala eraturik eta inskribaturik egon beharko du eta inola ere ez bere borondatez nahiz epai bideak eraginda desegite edo kitatzen egoeran izan.

Dos.- Los y las representantes de las Fundaciones y demás personas físicas miembros de la Junta deberán ser mayores de edad o menores emancipados o emancipadas, y gozar de la plenitud de los derechos civiles

Bi.- Fundazioen ordezkariek eta Zuzendaritza Batzordeko kide diren gainerako pertsona fisikoek adinez nagusiak edo adin txikiko emantzipatuak izan beharko dute eta eskubide zibil guztiak izan beharko dituzte.

**Artículo 18.-**

El cargo de miembro de la Junta Directiva se asumirá cuando, una vez sea designada la Fundación en el transcurso de la Asamblea General, se proceda a su aceptación o toma de posesión por el o la representante de la socia elegida.

Los cargos serán gratuitos, si bien la Asamblea General podrá establecer, en su caso, el abono de dietas y gastos a favor de las socias o sus representantes y, en su caso, a favor del Secretario.

**18. artikulua.-**

Zuzendaritza Batzordeko kide kargua, berriz, Batzar Orokorrean zehar Fundazioa izendatu eta horrek onartu ondoren, hautaturiko bazkidearen ordezkariak ere onartu edo kargua bere egiten duenean hartuko da.

Karguak doakoak izango dira; hala ere, bazkideei edo horien ordezkariei edo, hala badagokio, idazkariari dietak edo gastuak ordaintzea erabaki ahal izango du Batzar Orokorrak.

**Artículo 19.-**

Las Fundaciones socias cesarán en los siguientes casos:

a) Expiración del plazo de mandato.
b) Dimisión.
c) Cese en la condición de socia.
d) Inicio del proceso de disolución o liquidación, voluntaria o judicialmente instado.

Cuando se produzca el cese por la causa prevista en el apartado a), los y las miembros de la Junta Directiva continuarán en funciones hasta la celebración de la primera Asamblea General, que procederá a la elección de los nuevos cargos.

**19. artikulua.-**

Bazkide diren Fundazioek honako kasu hauetan utziko dituzte karguak:

a) Agintaldia amaitzean.

b) Dimisioa aurkeztean.
c) Bazkide izateari uztean.
d) Borondatez nahiz bide judizialetik bultzatuta desegite edo kitapen prozesua hasten denean.

Aurreko a) atalean aurreikusitako arrazoia tarteko kargu-uztea gertatzen denean, Zuzendaritza Batzordeko kideek funtzioetan jarraituko dute hurrengo Batzar Orokorra egin arte, bertan hautatuko baitira kargu berriak.

En los supuestos b), c), y d), la propia Junta Directiva proveerá la vacante mediante nombramiento provisional, que será sometido a la Asamblea General para su ratificación o revocación, procediéndose, en este último caso, a la designación correspondiente.

Todas las modificaciones en la composición de este órgano serán comunicadas al Registro de Asociaciones.

**Artículo 20.-**

Las funciones de la Junta Directiva son:

a) Dirigir la gestión ordinaria de la Asociación, de acuerdo con las directrices de la Asamblea General y bajo su control.

b) Programar las actividades a desarrollar por la Asociación.

c) Elaborar y someter a la aprobación de la Asamblea General:

.. El estado de cuentas del año anterior.
.. La memoria anual de gestión.

.. El presupuesto anual de gastos e ingresos.
.. El plan de actuación.

d) Acordar la convocatoria de las Asambleas Generales ordinarias y extraordinarias, y confeccionar el Orden del Día de las mismas.

e) Atender las propuestas o sugerencias que formulen las socias, adoptando al respecto, las medidas necesarias.

f) Representar a la Asociación, ante toda clase de organismos y entidades, públicas y privadas.

b), c), eta d) kasuetan, Zuzendaritza Batzordeak berak beteko du bakantea, aldi baterako izendapen bidez eta gero Batzar Orokorrera eramango da, berretsi edo errebokatzeko; azken kasu horretan, dagokion izendapena ere egingo da.

Organo honetako kideetan gertaturiko edozein aldaketa jakinarazi egingo zaio Elkarteen Erregistroari.

**20. artikulua.-**

Honako hauek dira Zuzendaritza Batzordearen eginkizunak:

a) Elkartearen ohiko gestioa zuzentzea, Batzar Orokorraren jarraibideak betez eta haren kontrolpean.

b) Elkarteak garatu beharreko jarduerak programatzea.

c) Honako hauek landu eta Batzar Orokorraren onarpenerako aurkeztea:

.. Aurreko urteko diru kontuen egoera.
.. Kudeaketari buruzko urteko txostena.
.. Gastu eta sarreren urteko aurrekontua.
.. Jarduera plana.

d) Ohiko eta ezohiko Batzar Orokorretarako deia egitea erabaki eta horietako gai-zerrenda prestatzea.

e) Bazkideek egiten dituzten proposamen eta iradokizunei erantzutea, horien inguruan behar diren neurriak hartuta.

f) Organo eta entitate publiko eta publiko mota guztien aurrean Elkartea ordezkatzea.

g) Interpretar y desarrollar los presentes Estatutos, oído el parecer de la Junta de Fundadores.

h) Designar, en su caso, personas o entidades expertas y contratar los servicios de un administrador o administradora.

i) Cualquier otra no atribuida expresamente a la Asamblea General.

g) Estatutu hauek interpretatu eta garatzea, aurrez Fundatzaileen Batzarraren iritzia entzunda.

h) Hala badagokio, pertsona edo entitate adituak izendatzea eta administratzaile baten zerbitzuak kontratatzea.

h) Batzar Orokorrari berariaz egotzi ez zaion beste edozein eginkizun.

**Artículo 21.-**

Además de las cuatro sesiones anuales preceptivas, la Junta Directiva celebrará sus sesiones cuantas veces lo determine la Presidencia, o la Vicepresidencia en su caso, bien a iniciativa propia, bien a petición de cualquiera de sus componentes.

Será presidida por el Presidente o la Presidenta, y en su ausencia, por la persona de más edad.

Para que los acuerdos de la Junta sean válidos, deberán ser adoptados por mayoría de votos de las personas asistentes, requiriéndose la presencia de la mitad de las mismas.

De las sesiones, el Secretario o Secretaria levantará acta que se transcribirá al Libro correspondiente.

La Junta Directiva puede crear Comisiones que se ocupen de cuestiones determinadas, con la composición y régimen de funcionamiento que ésta decida.

**21. artikulua.-**

Urteko derrigorrezko lau bilerez gai, Lehendakaritzaren edo, ahal badagokio, Lehendakariordetzaren iritziz –bere ekimenez, zein kideetako edozeinen eskariz– beharrezko den guztietan bilduko da Zuzendaritza Batzordea.

Lehendakaria izango da Batzordeko burua eta hura falta baldin bada, adinik handieneko pertsona.

Batzordearen erabakiak baliozko izan daitezen bertaraturiko pertsonen botoen gehiengoz hartu beharko dira eta ezinbesteko izango da horien erdia bertan izatea.

Bileretan akta jasoko du idazkariak eta gero dagokion Akta-liburuan transkribatuko.

Zuzendaritza Batzordeak gai jakinez arduratzeko batzordeak sortu ahal izango ditu eta une bakoitzean erabakitzen den osaera eta funtzionamendu-erregimena ezarriko die.

ORGANOS UNIPERSONALES

PRESIDENCIA

**Artículo 22.-**

El Presidente o Presidenta de la Asociación asume la representación

KIDE BAKARREKO ORGANOAK

LEHENDAKARITZA

**22. artikulua.-**

Lehendakariak Elkartearen ordezkaritza legala hartzen du bere gain eta

legal de la misma, y ejecutará los acuerdos adoptados por la Junta Directiva y la Asamblea General, cuya Presidencia ostentará respectivamente.

eta Zuzendaritza Batzordeak eta Batzar Orokorrak harturiko erabakiak betearaziko ditu; bi horietako lehendakari izango da.

El Presidente o Presidenta será elegido por la Asamblea General. Cuando se presente una candidatura completa a la Junta se entenderá que el que la encabeza opta a la Presidencia y el resto a las Vocalías.

Lehendakaria Batzar Nagusiak hautatuko du. Batzorderako hautagaitza betea aurkezten denean zerrendan lehena dena Lehendakaritzarako aurkezten dela ulertuko da eta gainerakoak bokalak izateko.

**Artículo 23.-**

Corresponderán a la Presidencia cuantas facultades no estén expresamente reservadas a la Junta Directiva o a la Asamblea General y, especialmente, las siguientes:

a) Convocar y levantar las sesiones que celebre la Junta Directiva, dirigir sus deliberaciones y decidir con voto de calidad en caso de empate en las votaciones.

b) Proponer el plan de actividades de la Asociación a la Junta Directiva, impulsando y dirigiendo sus tareas.

c) Ordenar los pagos acordados válidamente.

d) Resolver las cuestiones que puedan surgir con carácter urgente, dando conocimiento de ello a la Junta Directiva en la primera sesión que se celebre.

**23. artikulua.-**

Zuzendaritza Batzordeari edo Batzar Orokorrari berariaz ez dagozkion eskuduntza guztiak Lehendakaritzak izango ditu, eta honako hauek bereziki:

a) Zuzendaritza Batzordearen bileretarako deia egin eta bilera amaitutzat ematea, bertako eztabaidak zuzentzea eta bozketetan berdinketa gertatuz gero bere kalitatezko botoaren bidez erabakitzea.

b) Zuzendaritza Batzordeari Elkartearen jarduera plana proposatzea eta horren eginkizunak bultzatu eta zuzentzea.

c) Balioz erabakitako gastuak agintzea.

e) Presazko gaietan erabakiak hartzea, gero egiten den lehen bileran Zuzendaritza Batzordeari erabaki horien berri emanez.

SECRETARÍA

**Artículo 24.-**

Al Secretario o Secretaria General le corresponde la máxima responsabilidad de la gestión administrativa de la Asociación bajo la dirección de la Presidencia. En particular, le incumbirá de manera concreta recibir y tramitar las solicitudes de ingreso, llevar el fichero y el Libro de Registro de Socias, y atender a la custodia y redacción del Libro de Actas.

IDAZKARITZA

**24. artikulua.-**

Idazkariari dagokio Elkartearen kudeaketa administratiboaren erantzukizun nagusia, Lehendakariaren gidaritzapean. Bereziki, sarrera-eskaerak jaso eta tramitatzea, Bazkideen Erregistro Liburua eta fitxategia eramatea eta Akta-liburuaren zaintza eta erredakzioa izango ditu bere ardurapean.

Igualmente, velará por el cumplimiento de las disposiciones legales vigentes en materia de Asociaciones, custodiando la documentación oficial de la Entidad, certificando el contenido de los Libros y archivos sociales, y haciendo que se cursen a la autoridad competente las comunicaciones preceptivas sobre designación de Juntas Directivas y cambios de domicilio social

Halaber, Elkarteei buruz indarrean dauden lege-xedapenak bete daitezen ere zaindu beharko du, Entitatearen dokumentazio ofiziala zainduz, Elkartearen Liburu eta agiritegien edukia egiaztatuz eta Zuzendaritza Batzordearen izendapen eta egoitza sozialaren aldaketei buruzko jakinarazpenak agintaritza eskudunari helaraziz.

## CAPITULO TERCERO

### DE LAS FUNDACIONES SOCIAS: REQUISITOS Y PROCEDIMIENTO DE ADMISIÓN Y CLASES

## HIRUGARREN ATALBURUA

### FUNDAZIO BAZKIDEAK: ONARTZEKO BALDINTZAK ETA PROZEDURA ETA MOTAK

**Artículo 25.-**

**Uno**. Podrán ser miembros de la Asociación las Fundaciones de ámbito autonómico o local, de promoción privada o pública, de cualquier sector de actividad y cualquiera que sea su tamaño, legalmente constituidas y formalmente inscritas, y que no estén incursas en proceso de disolución o liquidación, voluntaria o judicialmente instado, y cuya admisión sea acordada conforme a lo dispuesto en los presentes Estatutos.

**Dos**. Cada Fundación socia estará representada en ésta por una persona física, previamente designada por aquélla. La Fundación socia podrá cambiar su representante cuando lo juzgue conveniente, comunicándolo por escrito a la Secretaría General de la Asociación.

**25. artikulua.-**

**Bat**. Elkarteko kide izan ahal izango dira autonomia erkidego zein tokian tokiko esparruko Fundazioak, ekimen pribatu zein publikokoak, edozein jarduera-sektoretakoak, beren tamaina edozein dela ere, legez eratu eta formalki inskribaturik baldin badaude eta borondatez nahiz bide judizialetik bultzatuta desegite edo kitapen prozesuetan ez badaude, eta horiek onartzea Estatutu hauetan xedatuaren arabera onartu baldin bada.

**Bi**. Fundazio bazkide bakoitzak pertsona fisiko bat izango du ordezkari, Fundazioak berak izendatuta. Fundazio bazkideak aldatu egin ahal izango du bere ordezkaria beharrezko jotzen duenean, Elkarteko Idazkaritza Orokorrera idatziz jakinarazita.

**Artículo 26.-**

Las Fundaciones que deseen asociarse solicitarán el alta por escrito, correspondiendo a la Presidencia la aceptación de la petición de admisión. Si no fuere admitida podrá recurrir ante la Asamblea General.

**26. artikulua.-**

Elkartzea desiratzen duten Fundazioek idatziz alta eskatuko dute , Lehendakaritza eskaeraren onarpena egin behar du. Ez bada onartzen Batzar Orokorraren aurrean jo ahal izango du.

DERECHOS Y DEBERES DE LAS FUNDACIONES SOCIAS

**Artículo 27.-**

Toda Fundación socia tiene derecho, a través de su representante, a:

1) Conocer, en cualquier momento, la identidad de las demás socias de la Asociación, el estado de cuentas de ingresos y gastos, y el desarrollo de la actividad de ésta.

2) Ejercitar el derecho de voz y voto en las Asambleas Generales, pudiendo conferir, a tal efecto, su representación a otras socias.

3) Participar, de acuerdo con los presentes Estatutos, en los órganos de dirección de la Asociación, siendo electora y elegible para losmismos.

4) Poseer un ejemplar de los Estatutos, y del Reglamento de Régimen Interior si lo hubiere, y presentar solicitudes y quejas ante los órganos directivos.

5) Ser oída por escrito, con carácter previo a la adopción de medidas disciplinarias, e informada de las causas que motiven aquéllas, que sólo podrán fundarse en el incumplimiento de sus deberes como socias.

6) Impugnar los acuerdos y actuaciones contrarios a la Ley de Asociaciones o a los Estatutos, dentro del plazo de cuarenta días naturales, contados a partir de aquél en que hubiera conocido, o tenido oportunidad de conocer, el contenido del acuerdo impugnado.

FUNDAZIO BAZKIDEEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

**27. artikulua.-**

Fundazio bazkide orok honako eskubide hauek ditu, bere ordezkariaren bitartez:

1) Elkarteko gainerako bazkideen nortasuna, diru-sarrera eta gastu-kontuen egoera eta Elkartearen ekintzen garapenaren berri uneoro jakitekoa.

2) Batzar Orokorretan hitz egiteko eta botoa emateko eskubidea erabiltzekoa, eta eskubide hori beste bazkideren baten esku utzi ahal izatekoa.

3) Estatutu hauekin bat etorriz Elkarteko zuzendaritza organoetan parte hartzekoa, organo horietarako hautagai eta hautatzaile izanez.

4) Estatutuen eta, egonez gero, Barne Araudiaren ale bana edukitzekoa, eta zuzendaritza-organoei eskakizunak eta kexak aurkeztekoa.

5) Zigor-neurriak hartu baino lehen, bazkideak idatziz adierazitakoa kontuan hartzekoa eta neurri horiek hartzea eragin duten arrazoien azalpena jasotzekoa. Neurri horiek hartzeko arrazoiek bazkideei dagozkien betebeharrak ez betetzean oinarri daitezke soilik.

6) Elkarteen Legearen edo Estatutu hauen aurkako erabaki edo jarduketak aurkatzekoa, aurkatutako erabakiaren edukia ezagutu edo ezagutzeko aukera izan duen egunetik hasi eta berrogei eguneko epean.

**Artículo 28.-**

Son deberes de las Fundaciones socias:

a) Prestar su concurso activo para la consecución de los fines de la Asociación.

b) Contribuir al sostenimiento de los gastos con el pago de las cuotas que se establezcan por la Asamblea General.

c) Acatar y cumplir los presentes Estatutos, y los acuerdos válidamente adoptados por los órganos rectores de la Asociación.

**28. artikulua.-**

Honako hauek dira Fundazio bazkideen betebeharrak:

a) Elkartearen helburuak lortzeko bere laguntza aktiboa eskaintzea.

b) Batzar Orokorrak ezarritako kuotak ordainduz gastuei aurre egiten laguntzea.

c) Estatutu hauek eta Elkarteko aginte organoek balioz hartutako erabakiak onartu eta betetzea.

RÉGIMEN SANCIONADOR

**Artículo 29.-**

Uno. Las Fundaciones socias podrán ser sancionadas por la comisión de alguna de las infracciones que se tipifican en el presente Estatuto.

Los y las representantes de las Fundaciones socias también podrán ser sancionados.

Dos. Las infracciones o acciones u omisiones susceptibles de ser sancionados son:

a) El impago de las cuotas.

b) El incumplimiento de los acuerdos válidamente adoptados por la Asamblea General o por la Junta Directiva, siempre que no hubieren sido objeto de impugnación expresa por parte de la Fundación asociada en el tiempo y forma legalmente previsto. La caducidad de la acción de impugnación se entenderá equiparable a la ausencia de impugnación.

ZIGOR-ARAUBIDEA

**29. artikulua.-**

Bat. Fundazio bazkideek zigorra jaso ahal izango dute Estatutu hauetan jasotako arau-hausteetakoren bat egiten badute.

Fundazio bazkideen ordezkariek ere jaso ahal izango dituzte zigorrak.

Bi. Honako arau-hauste, ekintza edo omisio hauek zigortu ahal izango dira:

a) Kuotak ez ordaintzea.

b) Batzar Orokorrak edo Zuzendaritza Batzordeak balioz hartutako erabakiak ez betetzea, baldin eta denbora eta forma aldetik legez aurreikusitako eran bazkide egin den Fundazioren batek berariaz inpugnatu ez baditu. Inpugkazio ekintza iraungi izana inpugnaziorik ezaren parekotzat hartuko da.

c) La conducta contraria a los intereses de la Asociación, o la conducta contraria o entorpecedora de los fines de la Asociación.

d) Las manifestaciones públicas contrarias a los intereses y fines de la Asociación o que puedan perjudicar a su imagen.

Tres. Las sanciones podrán ser:

a) Apercibimiento.

b) Multa, por importe mínimo de una cantidad igual a la cuota anual y máximo de una cantidad igual a diez veces la cuota anual.

c) Suspensión temporal de derechos, desde quince días hasta un año.

d) Separación definitiva.

Cuatro. Las infracciones o hechos sancionables prescribirán por el transcurso de seis meses desde que se produzca la infracción o el hecho o desde que se tenga conocimiento del mismo hasta la incoación del oportuno expediente.

Cinco. Las sanciones impuestas prescribirán por el transcurso del seis meses desde que alcance firmeza la imposición de la misma hasta que se proceda a su ejecución.

Seis. El procedimiento sancionador deberá, en todo caso, garantizar la audiencia y formulación de alegaciones por parte del expedientado y la proposición de prueba. También deberá respetar el procedimiento los principios de contradicción y de impugnación, recurso o revisión de las sanciones que, en su caso, puedan decretarse.

Siete. Podrá acordarse la suspensión cautelar de la condición de socia durante la tramitación del procedimiento y hasta que se dicte resolución definitiva.

c) Elkartearen interesen edo Elkartearen helburuen aurkako edo horiek eragozteko jarrera izatea.

d) Elkartearen interes eta helburuen aurkako eta haren irudiari kalte egin diezaioketen adierazpen publikoak egitea.

Hiru. Zigorrak honako hauek izan daitezke:

a) Ohartarazpena.

b) Isuna: gutxienez urteko kuotaren kopuruaren parekoa eta gehienez ere urteko kuotaren hamar halakoren parekoa.

c) Eskubideak aldi baterako etetea, hamabost egunetik hasi eta urtebetera arte.

d) Behin betiko Elkartetik kanporatzea.

Lau. Arau-hausteak edo egintza zehagarriak preskribitu egingo dira arau-haustea edo egintza gertatu denetik edo horien berri izan denetik espedientea ireki arte sei hilabete igaro baldin badira.

Bost. Ezarritako zigorrak preskribitu egingo dira zigorra ezarri eta irmo izatera iritsi denetik zigorra exekutatu arte sei hilabete igaro badira.

Sei. Zigortzeko prozedurak, edozein kasutan ere, bermatu egin beharko dio espedientea jaso duenari entzun eta bere aldetik alegazioak eta frogak aurkezteko aukera. Prozedurak errespetatu egin beharko ditu une bakoitzean agin daitezkeen kontraesan printzipioak, inpugnazio prozedurak, zigorren errekurtso edo berraztertzekoak.

Zazpi. Prozedura tramitatzen den bitartean eta behin betiko ebazpena eman arte bazkide izaera etetea erabaki ahal izango da.

Ocho. El régimen sancionador, con arreglo a lo fijado en este artículo, será concretado y desarrollado en un Reglamento específico o dentro del Reglamento de Régimen Interior que apruebe la Asamblea General.

Zortzi. Zehatze-erregimena, artikulu honetan ezarritakoaren arabera, zehaztu eta garatu egingo da berariazko Araudi batean edo Batzar Orokorrak onarturiko Barne Araudiaren barruan.

PERDIDA DE LA CONDICIÓN DE SOCIA

BAZKIDE IZAERA GALTZEA

**Artículo 30.-**

La condición de Fundación socia se perderá en los casos siguientes:

1. Por disolución o extinción de la Fundación.
2. Por separación voluntaria.
3. Por separación definitiva adoptada como sanción.

**30. artikulua.-**

Hona bazkide izaera galtzeko arrazoiak:

1. Fundazioa desegin edo desagertzea.
2. Borondatez alde egitea.
3. Zigor bidez erabakita behin betiko alde egitea.

## CAPITULO CUARTO

## LAUGARREN ATALBURUA

RÉGIMEN PRESUPUESTARIO Y PATRIMONIO FUNDACIONAL

AURREKONTU ARAUBIDEA ETA SORRERAKO ONDAREA

**Artículo 31.-**

1. Los recursos económicos previstos por la Asociación para el desarrollo de las actividades sociales, serán los siguientes:

a) Las cuotas de entrada que señale la Asamblea General.

b) Las cuotas periódicas.

c) Los productos de los bienes y derechos que le correspondan, así como las subvenciones, legados y donaciones que pueda recibir en forma legal.

d) Los ingresos que obtenga la Asociación mediante las actividades lícitas que acuerde realizar la Junta Directiva, siempre dentro de los fines estatutarios.

**31. artikulua.-**

1. Elkarteak bere jarduera sozialak garatzeko aurreikusiriko baliabide ekonomikoak honako hauek izango dira:

a) Batzar Orokorrak finkatzen dituen sarrera-kuotak.

b) Aldian behingo kuotak.

c) Dagozkien ondasun eta eskubideen emaitzak eta legez ezarritako eran jasotzen dituen dirulaguntza, legatu eta dohaintzak.

d) Zuzendaritza Batzordeak erabakitzen dituen jarduera zilegien bitartez Elkarteak lortzen dituen diru-sarrerak, beti ere estatutuetan jasotako helburuen barruan.

Los recursos obtenidos por la Asociación, en ningún caso podrán ser distribuidos entre las socias.

La Junta Directiva podrán admitir ayudas del sector público cuando respondan a acuerdos o convenios de colaboración que no comporten contrapartidas y se asegure la independencia de la Asociación.

2. La Asociación carece de patrimonio fundacional.

Elkarteak eskuratutako baliabideak ezin izango dira inola ere bazkideen artean banatu.

Zuzendaritza Batzordeak sektore publikotik laguntzak onartu ahal izango ditu, baldin eta trukean ezer eskatzen ez duten akordio edo lankidetza-hitzarmenetatik baldin badatoz eta Elkartearen independentzia bermaturik baldin badago.

2. Elkarteak ez du sorrerako ondarerik

## CAPITULO QUINTO

### DE LA MODIFICACIÓN DE ESTATUTOS

**Artículo 32.-**

La modificación de los Estatutos podrá hacerse a iniciativa de la Junta Directiva, o por acuerdo de ésta cuando lo solicite el 25% de las Fundaciones asociadas.

En ambos casos la Junta emitirá un informe que trasladará a todas las asociadas, en el que incluirá la motivación de la propuesta así como el texto propuesto.

**Artículo 33.-**

La propuesta de modificación será sometida a la Asamblea, que será convocada con carácter extraordinario.

**Artículo 34.-**

Las asociadas podrán proponer enmiendas, tanto con antelación a la celebración de la Asamblea, como durante la misma. En todo caso las enmiendas deberán contener el nuevo texto que se proponga.

## BOSGARREN ATALBURUA

### ESTATUTUAK ALDATZEA

**32. artikulua.-**

Estatutuen aldaketa Zuzendaritza Batzordearen ekimenez edo eta Fundazio bazkideen %25ek eskatuta egin daiteke.

Kasu bietan ere, Batzordeak bazkide guztiei eramango duen txostena igorriko du, proposamenaren motibazioa eta proposamen testua sartuz.

**33. artikulua.-**

Aldaketa proposamena Batzarraren mendean jarriko da, ohi ez bezalako izaeraz deituko dela.

**34. artikulua.-**

Bazkideek zuzenketak proposatu ahal izango dituzte, batzarra ospatu baino lehen edo batzarra ospatzerakoan. Izatekotan zuzenketek proposatzen den testu berria eduki behar izango dute.

## CAPITULO SEXTO

### DE LA DISOLUCIÓN DE LA ASOCIACION Y APLICACIÓN DEL PATRIMONIO SOCIAL

**Artículo 35.-**

La Asociación se disolverá:

1) Por voluntad de las Fundaciones socias, expresada en Asamblea General convocada al efecto, con los requisitos señalados en el articulo trece de los presentes estatutos.

2) Por las causas determinadas en la legislación aplicable a las Asociaciones.

3) Por sentencia

**Artículo 36.-**

En caso de disolverse la Asociación, la Asamblea General que acuerde la disolución, nombrará una Comisión Liquidadora, compuesta por tres asociadas extraídas de la Junta Directiva, la cuál se hará cargo de los fondos que existan.

Una vez satisfechas las obligaciones sociales frente a las Fundaciones socias y frente a terceras personas, el patrimonio social sobrante, si lo hubiere, será entregado a una o varias fundaciones o entidades de análoga naturaleza o fines sociales que la Asociación.

## DISPOSICIONES TRANSITORIAS

**PRIMERA.-** En el acto de constitución se procederá a la designación de una Junta Directiva compuesta por un Presidente o una Presidenta y tres Vocalías. Esta Junta designará al Secretario o Secretaria de la misma.

## SEIGARREN ATALBURUA

### ELKARTEA DESEGITEA ETA ONDARE SOZIALAREN ZERTARAKOA

**35. artikulua.-**

Elkartea ondorengo hauengatik desegingo da:

1) Fundazio bazkideen borondatez, berariaz deitutako Batzar Orokorrean hala adierazi badute, estatutu hauetako hamahirugarren artikuluan jasotako baldintzekin.

2) Elkarteei buruzko legeriak xedatutako arrazoiengatik.

3) Epai irmoaren eraginez.

**36. artikulua.-**

Elkartea desegitea gertatzen bada, desegitea erabakitzen duen Batzar Orokorrak Batzorde Kitatzailea izendatuko du, Zuzendaritza Batzordeko hiru kiderekin, eta batzorde hori arduratuko da Elkarteak dituen fondoez.

Fundazio bazkideen eta hirugarrenen aurrean Elkarteak dituen betebeharrak bete ondoren, geratzen den ondare soziala, halakorik balego, Elkartearen izaera edo helburu sozial bertsuko fundazio edo entitateren bati edo batzuei emango zaie.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

**LEHENA.-** Eratze ekitaldian Zuzendaritza Batzorde bat izendatuko da, lehendakari batek eta hiru bokalek osatua. Batzorde horrek izendatuko du idazkaria

En el plazo máximo de seis meses, a partir de la fecha de constitución de la Asociación, la Junta Directiva convocará Asamblea General en la que se procederá al nombramiento de todos y cada uno de los y las miembros de la Junta Directiva en los términos que se contempla en los presentes Estatutos y el plazo de designación, a efectos de expiración del mandato por el transcurso del tiempo, se computará a partir de la fecha de celebración de esa Asamblea General.

Elkartea eratzen den egunetik hasita gehienez ere sei hilabeteko epean Zuzendaritza Batzordeak Batzar Orokorrerako deia egingo du eta bertan Zuzendaritza Batzordeko kide guztiak izendatuko dira, Estatutu hauetan jasotako eran; eta izendatzeko jarritako epea Batzar Orokorra egin den egunetik aurrera hasiko da kontatzen, denbora igaro delako agintaldiaren amaiera zehazteko helburuetarako.

**SEGUNDA.-** Las Fundaciones que concurran a la constitución de la Asociación fijarán, en ese acto, la cuota de entrada que, en su caso, se considere y la cuota anual.

**BIGARRENA.-** Elkartea sortzen parte hartu duten Fundazioek egoki jotzen den sarrera-kuota eta urteko kuota finkatuko dituzte ekitaldi horretan.

## DISPOSICIÓN FINAL

La Asamblea General podrá aprobar un Reglamento de Régimen Interior, como desarrollo de los presentes Estatutos, que no alterará, en ningún caso, las prescripciones contenidas en los mismos.

## AZKEN XEDAPENA

Batzar Orokorrak Barne Araudi bat onartu ahal izango du Estatutu hauek garatzeko, baina inola ere ez ditu araudi horrek estatutuetan jasotako aginduak aldatuko.